

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Carmen Irusta Alakano

*Muxika,
Bizkaia
(1922-2016)*

Aurkibidea



Biografia



1922ko urriaren 10ean jaio zen Ibarruriko (gaur egun Muxika) Altamira baserrian. Bere aita Erandiokoa zen eta ama Izebal auzoko Etxenagusi baserrikoa. Lau neba-arrebatatik gazteena da bera. Umetan Ibarruriko eskolara joan zen. Bere auzokoa zen Bitoriano Arandiagaz ezkondu eta bi seme izan zituzten. Ezkondu ostean bere jaiotetxearen izen bereko baserrira joan zen bizitzera. Beti bizi izan da baserrian eta baserriko lanetan aritutakoa da.

Zintak

MUX-009

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-01-11
- **Iraupena:** 103 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Auzoko baserri izenak

- **Erref:** MUX-009/003
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:04:54. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

<p>Auzoko eta inguruko etxeen izenak.</p>

2. Ama barik gizon artean hazi zen

- **Erref:** MUX-009/005
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:08:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Ama barik hazi zen bi urte zituela hil baitzen. Gizon artean hazi zen 11 urte zituela amuma ere hil baitzen. Arropak garbitzen Goikoerrotaraino joaten zen eta bertako Gregorik garbitzen zizkion arropak. Altamira inguruan ez zuten ez urik ez biderik.</p>

3. Ezkontza Bilbon ospatu zuten

- **Erref:** MUX-009/007
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:09:33. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Bere ezkontzako bazkaria Bilbon ospatu zuten. Lutoz ezkondu zen, bere aitagarreba lehenago hil baitzen Ibarruriko zubitik jausita. ezkondu ostean, bi egun egin zituzten Bilbon bertan.</p>

4. Eskolan gauza gutxi

- **Erref:** MUX-009/009
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:12:17. **Bukatu:** 00:14:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Ibarruriko eskolako maistra Elena zen. Gauza gutxi ikasi zuen eta baitzen egunero joaten.</p>

5. Mezak eta Ibarruriko abadeak

- **Erref:** MUX-009/010
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:14:56. **Bukatu:** 00:17:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Umetan amumari eskutik helduta joaten zen mezara. Abade asko ezagutu ditu. Don Ezekiel eta don Rikardo durangarra aipatzen ditu, don Rikardo urte askoan egon zen. Mezak atzez eta latinez ematen zituzten.</p>

6. Bataioa eta jaunartzea

- **Erref:** MUX-009/011
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:17:05. **Bukatu:** 00:19:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Umea jaio eta segituan bataiatzen zen. Bere semea ere elurtza handi bateko sasoian bataiatu zuten. Bere lehen jaunartzea zuriz jantzita egin zuen.</p>

7. Erromerietako giroa

- **Erref:** MUX-009/012
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:19:09. **Bukatu:** 00:21:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Erromeriara joan aurretik arrosariora joan behar izan zuten. Muniketa eta Zugastietako erromerietaraino joaten ziren. Andrazkoak ez ziren tabernetara sartzen, ezta bururatu ere. Zugastietako erromeria non izaten zen kontatzen du. Dantza lotua egiteko ez zuten arazorik izaten. Domeketan baino ez ziren izaten. Zornotzara eta Gernikara urtean behin baino ez ziren joaten erromeriara. Esnea berak batu behar izaten zuen aitzak ez baitzekien.</p>

8. Muniketako erromeria

- **Erref:** MUX-009/013
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:21:58. **Bukatu:** 00:23:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Muniketako erromeriara inguruko jende asko azaltzen zen.</p>

9. Ibarruriko jaiak: San Pedroak, San Markosak

- **Erref:** MUX-009/014
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:23:09. **Bukatu:** 00:25:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Ibarruriko San Pedroetara jende asko hurbiltzen zen. Meza ostean erromeria egoten zen. Unda auzoko San Markosetara gonbidatu joaten zen beti.</p>

10. Desagertutako Madalenako ermita

- **Erref:** MUX-009/015

- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:25:19. **Bukatu:** 00:28:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

<p>Altamira ondoan bazegoen Madalenaren omenezko ermita bat. Duela 80 urte inguru-edo jausi zen. Bertara letania egiten zen. Hainbat letania egoten zen: Ajuriara San Juanetan, Oizera San Gregorioetan. Auzoan desagertutako etxe bakarra dago: "Berrintxe".</p>

11. Gerran soldaduen beldur

- **Erref:** MUX-009/017
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:29:03. **Bukatu:** 00:32:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Espainiako Gerra Zibilean, soldaduak etxe albora agertu zirenean, beldur handia izan zuten. Frontea ondo-ondoan zuten. Behin soldadu bat etxera etorri zenean, korrika egin zuen ihes beldurrez. Arrautza bila-eta joaten zitzaizkien.</p>

12. Jateko eskasia, Durango eta Gernikaraino irinetan

- **Erref:** MUX-009/018
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:32:07. **Bukatu:** 00:34:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Gerra sasoiaren jateko eskasia zegoen. Okako errotan ere ez zegoen irina, Gernikaraino joan ziren behin bila. Errazionamendu bila Ibarrurira joaten ziren. Zugastietan abastokoak egoten ziren jeneroa kontrolatzen. Astoz Durangora irin bila joandakoa da. Abastokoa galarazi egin zieten errotei ehotzea.</p>

13. Goikoerrotara diru bila

- **Erref:** MUX-009/019
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:34:41. **Bukatu:** 00:35:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Frontean zeuden nebei dirua bidali behar zien eta ez zuen izaten zer bidali. Goikoerrotara joaten zen bila.</p>

14. Nebak frontean

- **Erref:** MUX-009/022
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:38:20. **Bukatu:** 00:42:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

<p>Bi neba izan zituen frontean. Bat Larrabetzu aldean harrapatu zuten preso. Gaztea Langileen Batailoian egon zen, eta, Gernikako bonbardaketa ostean, kamiñero aritzea egokitu zitzaion. Carmenek ez du gogoan noiz joan zen lehen aldiz Gernikara erre ostean. Oso txarto pasatu zuten sasoi hartan.</p>

15. Medikuri ez, Jenara partera

- **Erref:** MUX-009/025
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:46:44. **Bukatu:** 00:48:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikiak

Laburpena:

<p>Ez du medikuarenera joatearen akordurik, umeak izaterakoan baino ez. Aluzeko Jenara aritzen zen partera lanetan. Bere seme nagusia elurtza handi batean izan zuen.</p>

16. Ur eta garbigailu barik

- **Erref:** MUX-009/027
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:50:19. **Bukatu:** 00:52:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Arropak garbitzeko asta biko baldeagaz joaten zen Goikoerrotara. Kontsumorako ur bila Ormetxeko iturrira joaten ziren. Garbigailua izan arren, elkarrizketa egin zitzaionean, nahiago zuen oraindik eskuz garbitu.</p>

17. Oizera San Gregorioetan

- **Erref:** MUX-009/028
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:52:26. **Bukatu:** 00:53:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Egur bila inguruko basoetara joaten ziren, pinu asko zegoen. Oizera San Gregorioetan joaten zen letaniarekin. Mauman bazkaltzen zuten.</p>

18. Hiletak oso desberdinak izaten ziren

- **Erref:** MUX-009/029
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:53:41. **Bukatu:** 00:57:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Auzokoren bat hiltzen zenean, gaubeila egiten zuten. Gorpua ez zen elizara sartzen; gela ilun batean egoten zen hilkutxa hutsa jartzen zuten. Lehenengo lurperatu egiten zen eta gero izaten zen meza. Hiletak goizez izaten ziren eta Etxandin ematen zen bazkaria.</p>

19. Tokadak

- **Erref:** MUX-009/032
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:58:23. **Bukatu:** 01:00:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Inguruko auzokoren bat hiltzen zenean umeak ibiltzen ziren etxerik etxe abisatzen. Hil kanpai, tokada, desberdinak zeuden: emakumezkoentzat 2, gizonezkoentzat 3 eta umeentzakoak. Carmen ere suertatu zitzaion etxean umea hiltzea.</p>

20. Gurdiak eta azpigarria

- **Erref:** MUX-009/037
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 01:03:37. **Bukatu:** 01:07:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserria » Baserriko lanak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Gurdi mota desberdinak ezagutu ditu. Udagoienean, urri bueltan, gurdia azpigarriz bete-beteta ekartzen zuten inguruko mendietatik. Azpigarria zelan egiten zuten azaltzen du.</p>

21. Gari lanak

- **Erref:** MUX-009/038
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 01:07:07. **Bukatu:** 01:09:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Gari-ebaten zerrarekin ibilitakoa da. Metak egiten zituzten. Garia eskuz jo eta sikatu behar izaten zuten. Lepoan igotzen zituzten sabaira (lastategira).</p>

22. Baserriko tresnak

- **Erref:** MUX-009/040
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:09:39. **Bukatu:** 01:11:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Baserriko hainbat tresna eta hauen erabilera azaltzen du: Aitzurra, "mokil-heuskixe", sardea, eskubara.</p>

23. Narra, alperrarria eta "intziek"

- **Erref:** MUX-009/042
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:11:20. **Bukatu:** 01:13:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Sekula ez du laia erabili. Mokilak apurtzeko narra erabiltzen zuten. Alperrarria ere erabiltzen zuten. "Intziek" ere erabiltzen zituzten soloan.</p>

24. 'Hijas de María' eta luistarrak Ibarrurin

- **Erref:** MUX-009/052
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:28:15. **Bukatu:** 01:29:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak

Laburpena:

<p>Ibarrurin Hijas de María eta luistarrak egon ziren. Maiatzena jai handiak egiten ziren.</p>

25. Ogia zelan egiten zuten

- **Erref:** MUX-009/056
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 01:33:08. **Bukatu:** 01:35:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Labean egiten zuten etxerako ogia. Prozesua azaltzen du. Zortzi egunetik behin egiten zuten.</p>

26. Kupoa entregatu behar

- **Erref:** MUX-009/057
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:35:50. **Bukatu:** 01:37:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Baserritarrek udaletxean kupoa entregatu behar izaten zuten: garia, artoa... Garia zelan garbitzen zuten.</p>

27. Perratzailea eta perratokia

- **Erref:** MUX-009/061
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:41:25. **Bukatu:** 01:43:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>Ganaduarentzako perrak (herradurak) jartzen nor ibiltzen zen aipatzen du. Ibarruriko Belaustegi "Belosti" baserrian zegoen perratokia.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com